



# ZER/NOR DAGO KUTXAN?

## **BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY**

Partaideek izendatu gabeko kutxa batean zer/nor dagoen asmatu beharko dute galderak eginaz. Irekiak edo itxiak izan daitezke.

## **AIM OF THE ACTIVITY**

Ariketa lotsa galtzeko edo ikerketa eta/edo elkarrizketa moduluei sarrera egiteko erabili daiteke, galdera irekiak eta irratiko galderak nabarmenduz elkarrizketetarako, eta baita 5 W + H galderak ere. Partaideek galdera berri bati ekin aurretik erantzuna aditzen ikasiko dute.

## **EXPECTED OUTCOMES**

Partaideak ireki eta erlaxatu egingo dira. Galdera ireki eta itxiak erabiltzearen arteko ezberdintasunez eta horien abantailez jabetuko dira. 5 W + H galderak ikerketarako teknika gisara erabiltzen ikasiko dute.

## **INFORMATIONS FOR TRAINERS**

### **EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED**

Hezitzaileak trebea izan behar du ikerketa zein elkarrizketa teknikan, eta informazio gehiegi ez ematen saiatu galdera itxiak itaundutakoan. Jolasa prestatzean, taldekideek ezagutzen duten objektu edota pertsonaiak topatu behar ditu.

### **INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES**

Gela zabal bat.

### **LENGTH**

Jolasak 5 minutu inguru irauten ditu. Dena dela, hezitzaileentzat informazioarekin, ordubeteraino ere iraun lezake.

### **MATERIALS**

Kutxa bat. Objektu bat edo paper zati bat kideei ezaguna zaien norbaiten izenarekin.

### **DESCRIPTION**

## **HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE**

Hezitzaileak jolasa azaltzen du. Kutxa bat dago, barruan objektu bat (kasu honetan partaideek eskuz esku pasa eta astindu egin dezakete kutxa, informazio bat bederen lortzeko) edo paper bat izen batekin idatzita daukana. Asmatu egin behar dute zer dagoen galdera irekiak, itxiak edo bietarikoak eginez. Aztertu zein kalitateko informazioa lortu den mota bateko eta besteko galderen bitartez. Eztabaidatu mota bakoitzeko erabilgarritasuna irratiko elkarrizketa baten baitan.

## **RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO**

Hezitzaile batek nahikoa behar luke taldearenzat, edozein partaiderekin ondo funtzionatzen duen ariketa dibertigarria baita.

## **RISK AND POSSIBLE ADAPTATION**

### **VARIATIONS**

Lehen aldi galdera irekiak baimendu soilik, eta itxiak bigarrean. Zenbat galdera egin dira aldi bakoitzean partaideek zer zen asmatu aurretik? Kasu bakoitzean eskuraturiko informazioaren kalitatea aztertu.

### **TIPS FOR TRAINERS**

Sinplea egin. Objektu edo pertsonaia zail batek jolasa luza dezake, eta zure helburua finean elkarrizketa eta ikerketari buruzko eztabaida sortzea da.

### **PARTICIPANTS**

Ulertzen al dute partaideek galdera irekien eta itxien arteko aldea? Eskatu elkar elkarrizketatzeko soilik galdera irekiak erabiliz, ulertu dutela bermatzeko.

## **ANALYSIS AND EVALUATION**

### **SCHEDULING**

Elkarrizketaren aurretik; ikerketaren aurretik edota lotsa galtzeko ariketa bezala formakuntzaren edozein ataletan.